

2022ko erakundearen memoria

25

Urteurrena

pertsonalde

Harrera, lankidetzeta eta
sentsibilizazioa



25

Urteurrena

pertsonalde

Harrera, lankidetzeta eta
sentsibilizazioa

Nazioarteko lankidetzarako proiektuak

Filipinak (Manila- Quezon City)

Eskola, elikadura eta osasun laguntza lehen mailako ikasleentzat eta unibertsitateko beka

- Kontrapartea: Jesusen Bihotzaren Ahizpa Misiolariak (Hilthrup)
- Finantzaketa: Pertsonalde



Laguntza lehen hezkuntzako ikasleei

2022 egokitzeko urte bat izan da Covid19-ko murrizketak kendu ondoren.

Eskolak aurrez aurre eman ez diren bitartean, laguntza eman zaie 4. eta 6. mailen arteko 36 adingaberi (eta beren familiei), zehazki, elikagai otzarak eta wifi konexioa eman zaizkie.

Urtearen erdialdean, **ikastetxeak irekitzen hasi zirenean**, ikasleak gogotsu zeuden elkar topatu eta klasera joaten hasiko zirelako. Eskola premiak estaltzen lagundu zaie, hala nola **eskolako materiala, uniformeak eta zapatak**.

Eskolak aurrez aurre berrabiarazi zirenean, laguntza eman zaie **garraiorako** eta adingabeek eskolan **bazkari bero** bat jaten dutenez, elikagai otzara emateari utzi da.

Aurten, 1. eta 3. mailen arteko ikasle gisa parte-hartu nahi duten 80 eskatzaile baino gehiagori egin zaie elkarrizketa eta baliabide eskaseko familiak dituzten 36 adingabe hautatu dira programan sartzeko. Azkenik, ikasturte hasieran, irailean, programan **lehenengo mailako 72 ikasle zeuden**.

Haurrak aurrez aurreko eskoletara ohitu behar zirenez, programako aurrez aurreko klaseak astean hirutan soilik izango zirela erabaki zen. Gainera, "jolasteko denbora" gehitu zen, haurrek parkean korrika egin eta jolas zezaten eta beste ikasleekin egoteko aukera izan zezaten.

Unibertsitateko ikasleentzako laguntza

Lehen mailako hezkuntzatik programa honetako ikasleak izan dira

Unibertsitateko 4. ikasturteko sei bekadunak graduatu dira eta beste 5 unibertsitatean hasi dira. Urtearen erdialdean, 1. mailako ikasle batek programa utzi zuen haurdun geratu zelako. Bestetik, 2. mailako ikasle bat hil zen tuberkulosiak jota.

Egun, programan **unibertsitateko 18 bekadun** daude.

Programan parte hartzen duten unibertsitateko eta bigarren mailako ikasleak lehen hezkuntzako haurren irakaskuntzaz arduratzen dira.

Honduras

“Bizikleta Solidarioa” proiektua

- Kontrapartea: Zaki Magoa
- Finantzaketa: Pertsonalde



Honduras Bizikleta Solidarioa proiektua laguntza emateko sortu zen, Hondurasetik urrunen, inor bizi ez den tokietan, eta premia handiena duten herrixka eta komunitateetako pertsoneri laguntzeko.

Landa eremuetako biztanleek ahalegin handia egiten dute lanera eta eskolara joateko. Kasu batzuetan, 2,5 eta 3,5 ordu bitartean eman behar dituzte oinez, hara joateko, eta gauza bera etxera itzultzeko.

Lanera bizikletaz joateak gauean etxera itzuli ahal izateko aukera ematen die, eta horrela, familiarekin egon daitezke.

Proiektuak aukera eman die luzaroan oinez ibiltzearen ordez, pedalei eragiteko. Kasu askotan, gazteak ikasten jarraitzeko motibatze modu bakarra izan da.

Guztira, 363 bizikleta eman dira. Hasieran, 42 bizikleta eman ziren; gero, beste 295 eta azkenik, 26 gehiago.

Peru (Callao)

Covid19aren eragina murrizteko urrutiko hezkuntza programa

- Elkarlanean garatutako programa: Ingeniería para la Cooperación (ICLI) eta Pertsonalde.
- Kontrapartea: Coprodeli Fundazioa
- Finantzaketa: Getxoko Udala



Proiektua 2021ean finantzatu zen 2022an zehar garatzeko. Covid19aren pandemiaren egoeraren ondorioz, ezinezkoa izan zen aurrez aurreko hezkuntza jarduerarik egin. Hori dela eta, agerian geratu da zein garrantzitsua den hezkuntza erakundeek, oinarrizko hezkuntzan, estrategia bat garatzea bitarteko digitalen bidez urruneko hezkuntza ahalbidetzeko.

Ildo horretan, **internetera konektatzeko** sistema eta LAN sarearen sistema ezarri ziren, eta **hezkuntza plataforma** bat eratu zen **liburutegi digitalarekin, Callaoko zortzi ikastetxetako** irakasle eta ikasleentzat.

Proiektuan **3930 ikasle** (1980 mutil eta 1950 neska) daude. Lehentasuna eman zaie errekurtsio urriko familietatik datozen haurrei. Gainera, **8 zuzendari eta 92 irakasle prestatu dira** (46 emakume eta 46 gizon).

Getxotik Mundura azokan parte hartzea

Nazioarteko lankidetzaren proiektuetan lan egiten dugun Getxoko GKEen azoka.



Gizarteratzeko harrera eta laguntza proiektuak



Artizar

Gizarte eta hezkuntza proiektua adingabeekin eta nerabeekin

Sestao (Bizkaia)

- Hazbide Fundazioarekin lankidetzan.
- Finantzaketa: Pertsonalde (proiektuaren % 10 finantzatu du)

Gizarte eta hezkuntza ekintza proiektua, honako hauei lagundu zaie:

- **Sei eta hamazazpi urte bitarteko 89 adingaberi (46 neskato eta 43 mutiko).**
- **Zaurgarritasun egoeran dauden haur horien familiei.**

Helburu nagusia da Sestaon gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden adingabeei eta beren familiei gizarte eta hezkuntza laguntza pertsonalizatua ematea, zaurgarritasun egoera horiek gaindi ditzaten eta erabat gizarteratzea lortzea ahalbidetzeko.

Lana honetan datza: Hezkuntza indartzea, aisialdia eta astialdia sustatzea, laguntza eta arreta psikologikoa ematea, norberaren zein taldeko emozio gaitasunak garatzea, ikasitakoan orientatzea, familiak laguntzea eta laguntza zuzenak ematea, eskolaratzeko zein familien premia materialak estaltzeko.

Proiektua lagundu dute:

- boluntario talde batek, zehazki: hainbat adinetako 45 pertsonak (28 emakume eta 17 gizon).
- Hiru profesionaleko talde batek.
- Lagungo Fundazioko profesional batek.

Proiektua beste erakunde batzuekin koordinatuta egin da:

Sestaoko ikastetxeak.
Sestaoko oinarrizko gizarte zerbitzuak.
Caritas: Sestao eta Bizkaia.
Hurtzaroaren aldeko Caixa sarea.

Pertsonalde elkarteak proiektuaren kostu osoaren % 10 estaltzen laguntzen du, zehazki, honako jarduera hauek laguntzen ditu diruz:

- Aisialdia eta denbora librearen:
 - Irteerak eta egonaldiak hurrekin: lau egonaldi egongo dira, taldeka, Aubixa baserrian (Elgoibar).
 - Hiriko udalekuak; bi txanda egongo dira (Sestao).
- Arreta jaso duten adingabeen taldeari eta koordinazio taldeari laguntza eta aholkularitza ematea (Lagungo fundazioarekin): Kasuak aztertzea, taldeak bateratzea, familiekin eta boluntarioekin prestakuntza jarduerak garatzea, proiektuaren jarduerari eta dinamikei buruz hausnartzea, etab.

Auzolana- Loturak

Getxo eta Uribe Kostako
Mankomunitatea (Bizkaia)

- Getxoko Udalarekin lankidetzan
- Hauekin koordinatuta: Ellacuria fundazioa eta Cáritas Bizkaia
- Finantzaketa: Eusko Jaurlaritza, Gondra Barandiarán fundazioa eta Coordinadora de Profesionales por la Prevención de Abusos (CoPPA)



Birkokatutako familientzako eta nazioarteko babes eskatzaileentzako harrera proiektua

2022an, **Auzolana** esku-hartzearen testuinguruan, Ukrainako **gerragatik beren herrietatik alde egin behar izan duten familia ukrainarrak** heltzeko eta hartzeko prozesuetan emandako laguntza txertatu da. Uribe Kostako mankomunitateko etxebizitza partikularretan eman zaie harrera. Proposamen hori Eusko Jaurlaritzak **“Loturak”** izena jarri dion programaren esparruan garatu dugu.

Auzolana-Loturak proiektuak **lagundutako familien** hainbat datu jaso ditugu.

Laguntutako pertsona kopurua guztira **232**

Emakumeak	99
Gizonak	28
Adingabeak	105 haur

Jatorriak

Siria	19 (4 familia)
Georgia	5 (1 familia)
Argelia	6 (1 familia)
Maroko	8
Venezuela	4
Ukrania	188 (94 familia)

Beste datu batzuk

Birkokatuta:	15 pertsona (3 familia)
Aldi baterako babesa:	190 pertsona
Egoitza eskatzaileak:	5 pertsona
Estatutua ukatuta:	5 pertsona (1 familia)
Egoera Irregularra:	6 pertsona
Egoera erregularizatua:	11 pertsona

Familien esku-hartze prozesuan honako ekintza hauek garatu dira:

- Esku hartzen duten eragileekin koordinatzea, batez ere udaleko Gizarte Zerbitzuekin, familia bakoitzaren laguntza eta baliabideak koordinatzeko.
- Laguntza ekonomikoak eskuratzeko eskaerak betetzea, baita laguntza zein egoera alderatzea ere.
- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxe partikularretan hartutako familiei ematen dizkien “Azken Sarea Indartzen” laguntzak kudeatzea.
- Familia harreragileei aholkuak eta orientazioa ematea, bizikidetzaren dinamikarako eta hartutako familien integrazio eta administrazio prozesuetarako.
- Erkidegoan esku-hartzeko koordinazioa, alderatzea eta orientazioa. Aldizkako bilerak egin dira familiak laguntzen dituzten boluntarioekin, familien egoera partekatze eta alderatzeko, baita esku-hartzeko eta laguntza prozesuen jarraipena egiteko ere.
- Familien gizarteratze prozesuetan eta adingabeen eskolaratze prozesuetan lagundu da. Haurtzaindegi zerbitzua eskaini zaie beren haurrak eskolan hasteko adin nahikoa ez zuten gurasoei. Iritsi berri diren helduei gaztelaniazko eskolak emango zaizkie, eta Ukrainatik jende gehiago etorri denez, ordutegi eta proposamen eskaintza handituko da. Goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 17:30etik 18:30era.
- Beharrezkoa den kasuetan itzulpen zerbitzua ere badago. Arabieraz egiten duten familiek eskuragarri dute taldeko pertsona bat itzulpen eta laguntza bereziko lanetan, beharrezkoa denean edo hala eskatzen dutenean. Errusieraz hitz egiten duen boluntario batek lagundu digu Ukrainatik etorri diren pertsonekin komunikatzeko. Gainera, gaztelaniaz ondo zekien eta lagundu nahi izan digun ukrainar batek ere gurekin jardun du, bai eta talde teknikoko kide izan da ere.
- Laguntza komunitarioa ere badago hitzorduetara joateko eta kudeaketak egiteko (administrazioan, osasun zerbitzuetan, etab.).
- Laguntza komunitarioa dago etxebizitza bilatzeko.
- Laguntza komunitarioa dago lana bilatzeko.
- Aholkularitza juridikoko zerbitzua.
- Sor daitezkeen premia berriei arreta ematea, larrialdiak estaltzeko: Beharrezkoa izan denean, alokairurako laguntza osagarriak eman dira, bai eta garraiorako eta premiazko eta beharrezko beste gastu batzuetarako ere.

Goihabe

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan
- Hauekin koordinatuta: Ellacuria fundazioa, Zehar Errefuxiatuekin, Cruz Roja, Lagungo eta Cáritas Bizkaia
- Finantzaketa: Getxoko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia



Goihabe programa Bizkaian finkatuta dagoen programa da, ibilbide luzea du eta bertan, Pertsonalderekin lankidetzan eta harremanetan dauden beste erakunde batzuek parte hartzen dute. Programa hori Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen du eta Getxoko Udalak garatzen du udalerrri honetan, Pertsonalderekin batera lankidetzan, erkidegoan laguntza ematen du.

Hartzaileak

Getxoko udalerrian ezarritako Goihabe programan ezarritako baldintzak betetzen dituzten asilo eta babes eskatzaileak, zaurgarritasun egoera berezia dutenak eta gobernu edo administrazio eskudunak eskainitako babesak bizitza autonomia izateko eta erabat gizarteratzeko aukerarik ematen ez dienak.

Esku-hartzeko esparruak

Pertsonaldek, bereziki, harreman eta komunitate arloekin lotutako txertatze alderdiak lantzen ditu. Goihabe programan dimentsio hori lantzen duten lerro zehatzak hauek dira:

- Migrazio prozesuek eragindako egoeren gizarte eta hezkuntza esku-hartzea, eta esku-hartze psikosoziala eta afektibo-emozionala, laguntza komunitarioaren dimentsioaren laguntzarekin.

- Informazioa eta orientazioa.
- Hizkuntza laguntza, pertsona bakoitzaren mailara egokituta, taldeka edo banaka, gaztelaniaz eta/edo euskaraz.
- Bitartekaritza eta sentsibilizazioa: pertsona bakoitza bere istorioaren protagonista izan dadin, ahotsa emanda beren istorioak, migrazioaren arrazoiak eta beste gai asko zuzenean partekatu nahi dituzten pertsoneri, harrera gizartea sentsibilizatzeko.
- Elkarreragina bultzatzea pertsonaren eta familiako, taldeko eta komunitateko inguruen artean.
- Elkar+ Topagunearen bidez dauden baliabideak erabiltzea.
- Etxebizitza: udal erakundeak eskainitako etxebizitzaren kudeaketa eta laguntza, autonomia handiagorako trantsizio garaian.

Bidebarri- Trapezistak

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udaleko Gizarte Kohesioko Arloarekin lankidetzan.
- Grupo Peñascal Kooperatiba eta Agintzari kooperatibarekin koordinatuta.
- Finantzaketa: Eusko Jaurlaritza.

Proiektu honen bidez eskaini dira inklusio ibilbideak eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen premiei erantzuteko zerbitzuak, Getxon.



Bidebarri 2022ko esku-hartzea

Getxoko udalerrian bizi den kolektiboa laguntzeko sortu zen ekimena. Horretarako, ezinbestekoa izan da udalerriko Gizarte Kohesio Arloarekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea.

Horrela, artatutako pertsonak Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik bideratu dira, zaurgarritasun egoerak dituztelako beren bizitza eta laneratze prozesuei dagokienez. Hezkuntza arloko esku-hartze baten eta ikuspegi komunitariotik egindako laguntza baten bidez, pertsona horiei trebetasun eta tresna pertsonalak garatzen laguntzen zaie, eta harreman aukerak eskaintzen zaizkie, lotura eraikitzeko eta beren errealitateari arreta emateko, eta horrek guztiak haien txertatze prozesuak eta ibilbideak errazten ditu.

Aldi berean, Trapezistak proiektuarekin arreta gehiago eman ahal izan zaie, baliabide zehatzekin, gazteei (18 eta 25 urte artean) gizarteratzeko eta laneratzeko. Horretarako Peñascal eta Angintzari laguntzaile izan ditugu eta koordinatuta aritu gara.

Kontu-hartzailletza	Artatutako pertsonen kopurua
Kontu-hartzailletza orokorra	35 pertsona artatu dira. % 100 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratuak. Ipar Afrikako jatorriko 18 eta 35 urte bitarteko gizonaren profila.
10 plazako pisuetan esku hartzea	Tutoretzapeko etxebizitzan artatutako 9 gazte, guztira. 2 irteera autonomiara, 1 kanporatze
Oinarrizko premiak (garraioa, medikazioa, dokumentazioa...)	30 pertsona
GLLentzako alokairurako laguntza osagarriak	17 pertsona
Aisialdian sartzeko eta gozatzeko laguntzak	6 pertsona Horietatik 4k Pirinioez Haraindiko esperientziarekin parte hartzen dute. Gizarte solidarioa
Aholkularitza juridiko-administratiboko zerbitzua	14 pertsona, zerbitzu juridikotik lagunduta (dokumentazioaren kudeaketa, errekurtsioak eta administrazio-zehapenak)
Banku-kontua irekitzen laguntzeko zerbitzua	8 lagun banku-kontua irekitzearekin batera
Gaztelania ikasteko laguntza	6 pertsona
Osasunaren arloko laguntza espezifikoak	7 pertsona
Mentoria sozialeko laguntza	6 pertsona laguntzaile baten erreferentziarekin



Emakume- tasunez -

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udaleko Gizarte Kohesioko Arloarekin koordinatuta
- Finantzaketa: La Caixa Fundazioa

Proiektuak etxebizitza sarbidea errazten die adingabeak ardurapean dituzten emakume migratzaileei, bereziki, egoera zaurgarrian daudenei, hainbat arrazoirengatik, hala nola baliabide ekonomiko nahikoak ez izateagatik, bizi diren etxebizitzatik joan behar izateagatik, lana galdu izanagatik eta udalerrian eskuragarri dagoen edo duina den beste egoitza bat aurkitzeko aukerarik ez izateagatik.

Egoera hori oso kezagarria da ama guraso bakarra den familietan duen inpaktuagatik: emakumeek ahalegin handia egin behar dute seme-alabak beren kabuz hezteko, eta gainera, familia mantentzeko diru-sarrerak sortzen dituzte, seme-alabak laguntzen dituzte eta giro afektiboa eta segurua sustatzen dute.

Familia horiek laneratzearen prekaritatea jasaten dute, oro har, zaintzaren edo garbiketaren arloetan, ordainsari baxuak eta egonkortasun eskaseko lan nitxoak izaten dira (askotan egoera irregularrean). Lanean ematen duten denbora baldintzatuta dago ordutegiengatik eta haurrak zaintzeko denboragatik.

Proiektu honetan, etxebizitza aldi baterako da, etxebizitza modu arruntean alokatzeko zubi bat da, eta aldi horretan zehar, hezkuntza laguntza ezartzen da, profesionalekin. Zerbitzua eskuratzeko lehentasuna dute zaurgarritasun arrisku larriagoa dutenek.

Etxebizitzan familia bat baino gehiago biziko dira, betiere familiek duintasunez bizi eta beren intimitatea eta elkarbizitza egokia zainduta.

Pertsonalderen bidez, erakundeko boluntarioekin harremanetan jar daitezke, eta horrela, emakumeek beren kapital soziala handitu dezakete. Harreman hori Topagunearen bidez ezartzen da, bertan garatzen baita esku-hartze komunitarioa.

Proiektuak 2022an izan zituen emaitzak eta inpaktua:

- 3 familia talde
- 11 pertsona: 3 emakume heldu eta 8 adingabe

Arreta jaso duten familien artean, batek alokairuko etxebizitza normalizatura irten ahal izan da, baliabidean hilabete batzuk eman ondoren. Horrek aukera ematen dio emakumeari emozionalki egonkortzeko, pixka bat aurrezteko, lagundutako etxebizitza bat bilatzeko, presarik gabe, etxebizitza duina aurkitzeko. Bere gizarte sarea eta laguntzak hobetu dira



Topagune Elkar+

Getxo (Bizkaia)

• Finantzaketa: Getxoko Udala

Elkar + topagunea Getxoko askotariko bizilagunentzako, Pertsonaldeko boluntarioentzako eta migrazio prozesu batean murgilduta dauden pertsonentzako topagune espazio bat izatea nahi da.

Espazio irekia da, kultura artekoa, Getxoko erreferentzia.

Jarduerak

Hitzaldiak, mintzaldiak eta zineforuma

Immigrazioaren inguruan
sentsibilizatzea, gai hori eta kultura
artekotasuna lantzen duten jardunaldi,
hitzaldi eta tailerren bidez.

Ostegunetan egin dira, 18:00etatik
19:00etara

→	2022ko otsailaren 24a Las personas en situación de riesgo de exclusión/ Bazterketa-arrisku egoeran dauden pertsonak	Emakumeak Gizonak Parte-hartzaileak	13 6 19
→	2022ko martxoaren 24a Presentación de la iniciativa legislativa popular (ILP): Regularización ya/ Herri Ekimen Legegilea (HEL): Erregularizazioa Ya		
→	2022ko ekainaren 30a Experiencia “Transpirenaica Solidaria 2022- Caminando por la Paz” / “2022-ko Transpirenaica Solidariaren esperientzia- Bakearen alde ibiltzen” Transpirenaica solidaria	Emakumeak Gizonak Parte-hartzaileak	10 6 16
→	2022ko irailaren 29a “Atzerritartasun Erregelamenduaren aldaketa berria: Aurrera egiten ari gara?”	Emakumeak Gizonak Parte-hartzaileak	17 15 32
→	2022ko azaroaren 29a “Claves del acompañamiento en la intervención social con personas en situación de exclusión social/ Esku-hartze sozialean, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsak laguntzeko gakoak”	Emakumeak Gizonak Parte-hartzaileak	15 13 28
→	2022ko abenduaren 19a “Loturak: Harrera egiten dutenen balioa. Euskal herritarren harrera sarea eratzeke ekimena”	Emakumeak Gizonak Parte-hartzaileak	10 5 15

Irteerak eta txangoak

Harremanak indartzeko eta ingurua ezagutzeko egiten dira, parte-hartzaileek aisialdian errepikatu ahal duten esperientzia izan dadin.

Hilabeteko bigarren igandean egiten dira, eta eguraldiaren arabera, egun osoak edo egun erdikoak dira.

Irteeran bertan, askotariko planak antolatzen dira parte-hartzaileen interesaren eta mugikortasunaren arabera. Plan horiek bazkalorduan eta helmugara iristean egiten dira.

Garraio (publikoko) kostuak Pertsonaldek ordaintzen ditu.



→	Martxoak 20 Bolintxuko ur jauzia (erreserba naturala)	Emakumeak 9 (3 adingabe) Gizonak 6 (2 adingabe) Parte-hartzaileak 15
→	Apirilak 24 Serantes Mendira Igoera/Agurtza Itsasontzi Museora Bisita	Emakumeak 12 (1 adingabe) Gizonak 7 (4 adingabe) Parte-hartzaileak 19
→	Maiatzak 15 Ibilbidea Galeako eta Aixerrrotako itsaslabarretatik	Emakumeak 23 (6 adingabe) Gizonak 23 (8 adingabe) Parte-hartzaileak 46
→	Ekainak 12 Ibilbidea errotak eta Armintzako arrantza herria bisitatzeko	Emakumeak 8 (1 adingabe) Gizonak 10 (1 adingabe) Parte-hartzaileak 18
→	Urriak 9 Itsaslur bide berdea Kobaron eta Pobeña artean	Emakumeak 18 (3 adingabe) Gizonak 13 (4 adingabe) Parte-hartzaileak 31
→	Azaroak 13 Ibilbidea Gorostizako urtegitik eta Errekaxotik	Emakumeak 41 (6 adingabe) Gizonak 16 (11 adingabe) Parte-hartzaileak 57
→	Abenduak 18 Martxa Lutxana-Bilbao	Emakumeak 5 Gizonak 3 Parte-hartzaileak 8

Pintura tailerra

Pintura artistikoko tailerraren helburua topaketa aukerak eskaintzea da, AISIALDIAN ETA DENBORA LIBREAN.

Tailerra asteazkenetan egin da, 18:00etatik 19:00etara.

Emakumeak	8
Gizonak	4
Parte-hartzaileak	12

Jolas tailerra

Tailer horren bidez, pertsonen eta kulturen arteko topaketa dinamizatzen da MAHAI JOKOEN bidez- Helburu hauek zehaztu dira: Jolastea "ondo pasatzea" sustatzen du, hiztegi egokia eskuratzea eta askotariko kulturen artean jolasak partekatzea ere.



Gaztelania eskolak

Ikasturtearen lehen erdian, gaztelania eskolak arratsaldean ematen ziren (17:30-18:30), pasa den urtetik lanean aritu garen gazte migratzaileei zuzenduta.

Ikasturtearen erdialde/amaieran, eskolen egitura aldatu genuen, Ukrainako herritarrak iritsi zirenean. Goizez ematen hasi ginen (10:00-13:00), ordu erdiko atsedenaldiarekin (11:30).

Taldea nahiko irregularra izan da, Getxoko zein Fudurako harrera familiek hartutako ukrainarrak zirela eta.

Taldeak ikasturtean zehar lagundu ditugun hainbat gaztek eta Ukrainako familiek osatu dituzte. Azken hilabeteetan zehar, 43 pertsona inguru izan dira.

Hainbat lantalde sortzea lortu da (guztira, bost), Topaguneko hainbat mahaitan eta Romoko Kultur Etxeko (RKE) gela batean banatuta. Talde mistoak ziren, Ukraina, Algeria eta Maroko jaioterri zituzten kideek osatuta.

Gaztelania batzordean 30 boluntario aritu dira. Horien artean, irakasleak zeuden, bai eta haurrak zaintzen eta kafe orduan laguntzen zuten pertsonak ere.

Taldea mailaka banatuta dago: A maila (altuena), B maila (ertaina) eta C maila (baxuena).

Kideen jatorria askotarikoa izan da: Ukraina, Maroko, Algeria, Senegal, Filipinak eta Siria.



Euskara eskolak

Familia migratzaileetako hurrei, euskaraz, laguntza eta errefortzua eskaini zaie, etxean laguntza hori ez dutelako. Bost irakasle zeuden. Eskolak asteko bi egunetan egiten ziren, astearteetan eta ostegunetan, 17:30etik 18:30era. Hamabi hurrek hartu dute parte, bi taldetan banatuta.

Informatika tailerra

Maiatzean informatika tailerra egin ziren. Tailerrak lau saio izan zituen, informatikako oinarrizko ezagutzari buruz, eta Topaguneko material informatikoa erabili zen. Arratsaldean izan ziren, ostegunetan, 16:00etatik 17:00etara.

Tailerra erakundeko laguntzaile guztioi zuzenduta zegoen, ordenagailua erabiltzeko zailtasunak zituztenei eta hobetu nahi zutenei.

Etxebizitza bilatzeko tailerra

Tailer honek laguntza eskaintzen die Getxon logela bat bilatzeko premia eta zailtasunak dituzten gazte migratzaileei.

Hiru saio dira, eta horietan logela bat bilatzeko teknikak eta estrategiak emango zaizkie, non bilatu jakin dezaten eta telefono deiei nola erantzun jakin dezaten.

Tailerra astean behin emango dira, eta guztira, hiru saio izango dira.

Tailerra astearte arratsaldetan ematen da, 16:30etik 17:30era.

Emakumeak	5
Gizonak	10
Parte-hartzaileak	15





Kontzertuak

Topagunearen helburuetako bat laguntzen ditugun pertsonak proposatzen dituzten jarduerak eta ekimenak bultzatzea da.

Mentore programaren barruan, kontzertu bat egiteko aukera izan genuen Topagunean. Izan ere, bandaren kideetako bat mentore programan parte hartzen du eta Pertsonaldek kudeatzen duen egoitzetako batean bizi da.

Kontzertua 2022ko ekainaren 18an izan zen, 18:30ean, TAGHUFU Band taldearen eskutik.

Gizarte mentore programa

2020az geroztik, Pertsonaldek mentore proiektu bat garatzen jarraitzen du, Bidebarri proiektuaren bidez lagundu ditugun gazteei zuzenduta.

2022an, lau mentore bikote izan ditugu.

Topagune espazioa bikoteen eskura jartzen da elkartzeko toki bat izan dezaten, baita mentorrek talde teknikoarekin aldizkako bilerak eta jarraipena egin ditzaten ere.

Gizarte Mentoreen Estatuko I. Kongresuan parte hartzea

Iruñean egin zen 2022ko maiatzaren 4tik 6ra. Pertsonaldek mentore programako kide gazte baten testigantza aurkeztu zuen.

Pertsonaldeko Mentoreen Topaketa

2022ko otsailaren 19an garatuta Mentore gisa parte-hartzen duten boluntarioei zuzendutako heziketa eta partekatzeko espazioa



Orientazio juridikoko zerbitzuak

Topagune espazioan laguntza ematen zaie edozein zalantza, kezka edota kontsulta juridiko dutenei. Esparru juridikoan laguntza jaso duten pertsona horiek erakundearen laguntza jasotzen zuten aurretik edo Getxoko Harrera Bulegora laguntza bila joan ziren pertsonak izan dira, Getxon bizi ez direnak eta orientazio juridikoa behar dutenak.

Besteak beste, egoitza baimenak, administrazio errekurtsioak, eskubideei buruzko aholkularitza edo abokatuaren laguntza eskatu dira.

Emakumeak	5
Gizonak	25
Parte-hartzaileak	30

Prestakuntza eta sentsibilizazio proposaena

Getxo (Bizkaia)

• Lankideak: Getxo Udala, Círculos del Silencio Bizkaia Isilik, OEE Bizkaia, Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús ikastetxea eta San José Carmelitas ikastetxea (Santurtzi)

“Bizilagunak” sentsibilizazio programan parte-hartzea, azaroaren 20an, Getxon.

Ekimenaren helburua honako hau da: topaguneak ematea kultura artekotasunaren, aniztasunaren eta udalerrian elkarrekintzan aritzeko tokiak sortzearen aldeko apustua egiten duten Getxoko herritarrei.

Bartakoak zein kanpokoak diren Getxoko bizilagunen arteko topaketak eta interakzioak sortzea helburu duen programa da; herritar horiek komunean izango dute euren herriaren kultura aniztasuna ospatzea, elkar ezagutzeko gogoia, eta komunitatean uneak partekatzeko nahiz zubiak eraikitze nahia.

Getxo isilik (Círculos del Silencio) ekimenean parte hartzea.

Etorkinen aurkako indarkeriaren aurrean, 2007. urtean frantziskotar talde batek ekintza hau hasi zuen Tolosan. “Zirkulu” horien bidez indarkeriarik gabeko kultura bultzatu nahi dute, mundu guztiarentzat irisgarria den ekintza baten bidez, sufritzen ari diren pertsonekin errespetuz jokatzeko eta gizarteak lege bidegabei ematen dien babesa (bereziki etorkinen aurka doazenak) txikitzeko.



Dokumentala egitea: “Nirekin konta dezakezu: harrera esperientziak”.

El documental se presentó el 12 de mayo en el Topagune y está disponible en el canal de YouTube

Bideoa ikusi



PUEDES CONTAR CONMIGO
EXPERIENCIAS DE ACOGIDA

Sentsibilizazio proiektuetan parte hartzea, prestakuntza zentroekin batera.

Bi proiektutan parte hartu dugu bi ikastetxetan, Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús eta San José Carmelitas (Santurtzi). Guztira, 15 eta 17 urte bitarteko 100 ikasle izan dira.

Mahai inguru batean parte hartzea, Euskal Herriko Unibertsitatean

Mahai ingurua otsailaren 17an egin zen, Gizarte Hezkuntzako ikasleekin.



Participación en la Campaña de la iniciativa legislativa popular (ILP): Regularización ya / Herri Ekimen Legegilea (HEL): Erregulatizazioa Ya.

Kanpaina zabaldu dugu, ekimena azaltzeko hitzaldi bat egin dugu, sinadurak batu ditugu eta Getxoko harrera zentro izan gara.

Hitzaldia Abokatuen Elkargoan

Atzerritartasun Erregelamenduaren aldaketa, lagunduta ez dauden adingabe eta gazteentzako aukera berriak?
2022ko ekainaren 14a

Estrategia hausnarketa jardunaldia Sarekiderekin

Getxoko boluntarioen koordinatzaile den Sarekideren kide gisa parte hartu genuen 2022ko abenduaren 16rako deitu zen hausnarketa estrategikoko prozesuan.



Boluntarioria



Urtean zehar, boluntarioen parte-hartzeak gora egiten jarraitu du.

Gure ustez, Topagune Elkar+ bezalako gune bat edukitzeagatik izan da. Horri esker, jarduera proposamena zentralizatu ahal izan da, eta boluntarioek beren jarduerak egin ahal izateko gune bat izan dute, esku-hartze komunitarioa egituratzeko aukera eta ekintzak gauzatzeko gaitasun handiagoa eman zaie. Bai eta jarduera handiagoa garatzea ere, programa berrietan parte hartuta.

Gainera, hainbat jardueretan aktiboki parte-hartzen duen boluntarioen sarea 60 pertsona inguruk osatzen dute.

Hurbileko gizarte oinarria mantentzen jarraitu dugu elkarteko 200 pertsonentzako.

Boluntarioen proposamena batzordeen bidez egituratzen da. Batzordeek beren interesak bideratzen dituzte eta ingurunekeo beharrei erantzuten diete: Etxebizitza, familia, pedagogia eta kudeaketa.

Erakundearen jarduerak eta helburuak bete ahal izateko funtsezkoa da boluntarioek aktiboki parte hartzea, boluntarioak baitira erakundearen funtsezko ardatza. Zuen parte-hartzeari, konpromisoari eta konfiantzari esker erakundea sinesgarriagoa da. Lantalde teknikoak bideratzen ditu esku-hartzeak, hausnarketa bultzatzen du eta beste erakunde batzuekiko koordinazio dinamiketan laguntzen du.

Encuentros Pertsonalde	Boluntarioak	Gizonak	Emakumeak
Etxebizitza batzordea	11	2	9
Familia batzordea	11	3	8
Pedagogia batzordea	30	8	22
Harrera batzordea	6	1	5
Perualde kudeaketa	3	2	1
Perualde topaketak	43	12	31
Bazkideen eta laguntzaileen sarea	200 gutxi gorabehera		

2022.
Erakundearen
25. urteurrenaren
ospakizuna

María González Lacabex presidentearen 25. urteurren ospakizuneko hitzaldiaren laburpena:

“Duela mende laurden sentitu genuen bihotzean ziztada, jabetu ginenean beste herrialde batzuetan, milioika pertsonak bidegabekeria eta desberdintasun sakonak bizi dituztela. Horrek garapenerako lankidetzaren proiektuetan laguntzera bultzatu gintuen.

Duela zenbait urte, krisi ekonomikoak gure ingurune hurbilean bizi genuen ahultasunaren errealitateara hurbildu gintuen, Artizar proiektuaren eskutik. Garai batetik hona, nazioarteko lankidetzaren proiektuak alde batera utzi gabe, gero eta gehiago inplikatu gara hurbileko esku-hartze ekintzetan.

Gaur egun, nazioarteko lankidetzan lan egiteak ematen digun begirada global horri eusten diogu, baina baita gure

**María González Lacabex
Pertsonalde Presidentea**

inguruko errealitateetatik hurbil dagoen begiradari ere: zaurgarritasun horri aurpegia eta izen-abizenak jartzen dizkiogu.

Hori dela eta, “Oraindik ez gara etsi” leloa errepikatzen jarraitu dugu, eta beste hau gaineratu dugu: “Pertsonekin”. Berdin du non dauden: Getxon, Sestaon, Liman edo Manilan. Hori islatu nahi izan genuen gure aurkezpen bideoan.

Azken finean, gure jatorriaz edo inguruabarrez harago, pertsonak gara. Duintasunez eta bakean bizi nahi dugu.

Horrek kezkatu eta mugiarazi gaitu azken 25 urteetan. Oraindik ere, horrek kezkatzen eta mugiarazten gaitu.”



18:30	Acogida Música en directo a cargo de Taghufi Band Grupo musical Amazigh de blues del desierto .
18:45	• Recordatorio del 18 de Diciembre, Día Internacional de la Persona Migrante • Visionado de montaje fotográfico sobre la situación de las personas en tránsito. • Música en directo de violoncello. David Arpide Pastor (Estudiante de 2º grado profesional). • Sonata de Antonio Vivaldi • Perfect de Ed Sheeran
19:00	Unas palabras por el 25 aniversario a cargo de María González Lacabex . <i>Presidenta de la Asociación Pertsonalde</i>
19:15	• Música en directo de violoncello. David Arpide Pastor (Estudiante de 2º grado profesional). • Concierto de Davidoff
19:20	Picoteo y espacio de encuentro entre las presentes.
20:15	Despedida con música en directo de Taghufi Band .

25 años de cooperación y solidaridad.
25 años sin conformarnos

Te esperamos



Entrada libre hasta completar aforo.
Se agradece confirmar la asistencia
pertsonalde@pertsonalde.org

Getxoko Migrazioen harrerarak o eta arreta emateko bulegoa

Getxoko Migrazioen harrerarako eta arreta emateko bulegoa 2021eko uztailean sortu zen zerbitzua da, askotariko zerbitzu publiko eta gizarte-erakunderekin lankidetzan, honako hauek eskaintzen dituen: informazioa, aholkularitza eta laguntza nazioarteko mugikortasun-prozesuetan dauden pertsoneri.

Zerbitzuak

Lehenengo harrera-zerbitzua: bulegora heltzen diren pertsonen lehenengo kontaktua eta gainerako zerbitzuetarako sarbide-puntua. Helburua da erabiltzaileari ongietorria ematea eta udalerrinari nahiz bertan dauden baliabideei buruzko informazio orokorra ematea. Horrez gain, erantzun pertsonalizatua emango zaie planteatutako beharrian eta eskariei: izan daiteke informazioa, orientazioa edo bulegoan nahiz hirian zehar [osasun-sarea, gizarte-laguntzarako sarea, hezkuntza-zerbitzuak, hizkuntzaren ikasketa, erakundeen sarea, oinarrizko kudeaketa eta izapideak (erroldatzea, osasuntxartela, etab.)] eskaintzen diren zerbitzuetara bideratzea.

Eskubideak eskuratzeko zerbitzu espezializatua: zeharkako zerbitzua da eta atzerritarra izateak jarraian adierazitako gaiei lotutako eskubideak baliatu ahal izatea zailtzen dituen kasuak jorratzen ditu.

- Atzerritartasunari eta nazioarteko babesari buruzko araudia.
- Langile atzeritarraren izaera, etxeko lanean eta zaintza-lanean arreta jarritz.
- Pertsona migratuei zeharkako aholkularitza juridikoa ematea
- Profesionalei aholkularitza eta oinarrizko prestakuntza ematea.
- Getxoko biztanleei aholkularitza ematea aurrez aipatutako gaietan.


Arretarako ordutegia

Lehen harrerako zerbitzua:


Astelehen eta astearteetan: 09:00etatik 13:00etara
 Asteazken eta ostegunetan: 15:00etatik 19:00etara
 Ostiraletan: 10:00etatik 14:00etara

Zerbitzu espezializatua (aldez aurreko hitzorduarekin bakarrik):


Astearteetan: 15:00etatik 20:00etara
 Ostegunetan: 09:00etatik 14:00etara



- Emakumeak
- Gizonak



- Lan-kontsultak
- Atzerritartasun-prozedurak
- Beste zerbitzu publiko batzuk
- Bestelakoak



- Bolivia
- Honduras
- Kolonbia
- Paraguai
- Nikaragua
- Peru
- Beste Amerika batzuk
- Beste batzuk Afrika
- Beste batzuk Asia
- Beste batzuk Europa



2022ko proiektuen txosten ekonomikoa

Diru-sarrerak: 367.949€

40.679€ (%11,05) Bazkideak: kuotak eta dohaintzak

290.270€ (%78,88) Dirulaguntza publikoa

221.270€ Eusko Jaurlaritza

44.000€ Getxoko Udala

25.000€ Bizkaiko Foru Aldundia

23.000 (%6,25) Dirulaguntza publikoa


10.000 Gondra Fundazioa

8.000 La Caixa Fundazioa

5.000 Abusuak Prebenitzeko

Profesionalen Koordinatzailea (CoPPA)

14.000€ (%3,81) Zerbitzuak ematea



Gastuak: 350.813€

Proiektuak Lankidetzan: 14.300€ (%4)

Proiektua Txertatzea: 322.063€ (%92)

Artizar 15.000€

Topagune 35.000€

Harrera-bulegoa 13.109€


Loturak / ASI 59.072€

Goihabe/Auzolana 31.926€

Emakumetasunez 9.436€

Bidebarri/Trapezi 158.520€

Sentsibilizazio proiektua: 14.450€ (4%)




25

Urteurrena

pertsonalde

Harrera, lankidetzeta eta
sentsibilizazioa

Jarrai gaitzazu sare sozialetan:



www.pertsonalde.org

